

FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN

EAE 2016 EMAITZEN TXOSTENA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA KULTURAN EAE 2016

EMAITZEN TXOSTENA



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2018ko abendua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Aurkezpena.....	6
1. Azterlanaren helburuak eta metodologia	7
1.1. Helburuak	7
1.2. Fitxa teknikoa	8
1.3. Azterlanaren behaketa-eremua	9
2. Testuinguruaren azterketa	11
3. Kulturako gastuaren bilakaera 2008-2016	12
3.1. Kulturako gastu likidatuaren bilakaera	12
3.2. Kulturako gastu likidatuak administrazio publikoen aurrekontuetan duen garrantzi erlatiboa	14
3.3. Bestelako sail eta arloek kulturaren egindako gastua	19
3.4. Erakunde mota bakoitzaren kulturako gastu likidatuaren bilakaera	22
3.5. Hedabideetan egindako gastuaren bilakaera	39
4. Kulturako gastua administrazio-mailen arabera	42
4.1. Transferentzien fluxuak administrazio-mailen arabera	42
4.2. Kulturaren egindako gastua kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera	45
4.3. Kulturaren egindako gastua kultura-esparruaren eta administrazio-mailen arabera	55
5. Administrazio publikoen multzoak kulturaren egindako gastua	69
5.1. Administrazio-mailen arteko transferentzien fluxuak	69
5.2. Jatorrian kontsolidatutako gastua	71
5.3. Helmugan kontsolidatutako gastua	78
6. Kultura-arloko enplegu publikoa	86
7. Laburpen gisa	90
ERANSKINAK	94
I. ERANSKINA. Azterlanaren metodologia	94
I.1. Aztertutako kontzeptuak	94
I.2. Gastua kontsolidatzeko prozesua	97

II. ERANSKINA. 2016ko azterlanean parte hartu duten erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak, lurralde historikoen arabera.....	100
III. ERANSKINA. 2016ko azterlanean parte hartu duten udalak, biztanleria-tamainaren arabera	102
IV. ERANSKINA. Emaizten laburpena kultura-esparruen arabera.....	104
MUSIKA	104
KULTURA-EKINTZA	106
MUSEOAK	108
LIBURUTEGIAK	110
JAIK ETA HERRI-KULTURA	112
ANTZERKIA ETA DANTZA	114
ZUZENDARITZA ETA ZERBITZU OROKORRAK	116
ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK	118
ONDAREA ETA ARKEOLOGIA	120
ARTXIBOAK	122
IKUSIZKO ARTEAK	124
LITERATURA ETA ARGITALPENA	126
BERTSOLARITZA	128

Kulturaren Euskal Behatokiak Euskal Autonomia Erkidegoko *Finantzaketa eta gastu publikoa kulturaren* estatistikaren bosgarren edizioaren emaitzak aurkezten ditu, 2016 urteari dagozkion datuekin.

Azterlan hau da administrazio publikoen kultura-politikak aztertzeko ekonomia-arloko informazio-iturri nagusia, berau baita, hain zuzen, EAE osoko datuak eskaintzen dituen bakarra. Azterlanak kuantitatiboki eta objektiboki irudikatzen ditu honako hauek: sektorearen pisua aurrekontu publikoen osotasunean, sektore bakoitzaren lehentasunak, programa eta inbertsio puntualek gastuen osotasunean duten eragina, esku-hartze publikoaren mota eta administrazioaren logika funtzionala. Edizio honetan, 2008-2016 aldiko bilakaera-datuak aurkezten dira, bai eta 2010-2016 aldiko gastu kontsolidatuarenak ere.

Metodologiaren ikuspuntutik, bermatuta dago datuen kalitatearen maila guztiz zehatza, kontuan hartzen bada galdetegiaren xehetasuna eta kontsolidazio bikoitz bidez gauzatzen den arazketa-maila. Edizio honetan, 151 udalen eta 51 erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen aurrekontuak aztertzen dira, baita hiru foru-aldundienak eta Eusko Jaurlaritzarenak ere.

Azkenik, azpimarratzekoa da aztertutako erakunde guztien inplikazioa. Kulturaren, kontu-hartzailetzaren eta ekonomiaren arloetako teknikarien laguntzarik gabe, ezingo litzateke azterlana burutu. Behatokiak eskerrak eman nahi dizkie guztiei parte hartzeagatik, eta kultura-eragileei gonbidapena luzatu nahi die emaitzak ezagutu ditzaten prestatzen dituen euskarri eta txostenetan, bai parte hartu duten erakunde bakoitzarentzat, bai kultura-politikak ezagutzeko interesa duen publikoarentzat.

1. Azterlanaren helburuak eta metodologia

1.1. Helburuak

Kulturako finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistikaren helburua da, oinarrian, panoramika bat eskaintzea EAEko administrazio publiko nagusiak kulturaren egiten ari diren ekarpen ekonomikoen eta inbertsioaren muntari buruz. Eta, zehazkiago:

- EAEko administrazio publikoetako gobernu-maila ezberdinek kulturaren egiten duten gastua zein den jakitea.
- Kulturaren egindako gastu publikoaren izaera ekonomikoa aztertzea.
- Kulturaren egindako gastu publikoaren banaketa aztertzea kultura-esparruen eta -sektoreen arabera.
- EAEn kulturaren egiten den gastu publikoaren ikuspegi orokorra, osoa eta araztua ematea.
- Kulturaren egindako gastuari dagokionez, banan banako informazioa eta alderaketari zein bilakaerari buruzko erreferentziak ematea azterlanean parte hartu duen erakunde bakoitzari.
- Euskal administrazio publikoek komunikabideetan egiten duten gastuari buruzko informazioa biltzea.
- Kulturako enplegu publikorako hurbilketa izatea.

1.2. Fitxa teknikoa

Eragiketaren izena
Euskal Autonomia Erkidegoko kulturako finantzaketa eta gastu publikoaren estatistika
Eragiketaren estatusa
Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak garatua. Eustatek ofizialdua
Maiztasuna
Bi urtez behin
Eragiketa mota
Erroldan oinarritua: Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta 5.000 biztanletik gora dituzten udalak; baldintza jakin batzuk betetzen dituzten erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak ¹ Laginetan oinarritua: 5.000 biztanletik beherako udalak
Informazio bilketa
Zuzeneko informazioaren bilketa-prozesua, fitxa egituratuaren bidez (paperezko euskarrian zein informatikoan). Aholkularitza eta berariazko laguntza teknikoa ere eskaini dira, erakunde bakoitzeko informatzaileen ezaugarri eta beharrezanetara egokituak, hainbat teknikatako mix baten bitartez
Informazioa biltzeko aldia
2017ko uztaila – 2017ko abendua
Informazioaren erreferentzia-urtea
2016
Erantzun-maila
Erakundeen % 100
Landa-lanaz arduratu den enpresa
Siadeco
Diseinua kontrastatzeko eta baliozkotzeko prozesua
Administrazio publikoetako arduradunak, azterlana abiarazi baino lehenagoko hainbat lantaldetan parte hartu dutenak

¹ Eranskinean zehazten dira azterlanean sartzeko irizpideak.

1.3. Azterlanaren behaketa-eremua

Estatistika honek azterketa-oinarri hauek hartu ditu barnean:

- Eusko Jaurlaritzan, hiru foru-aldundiak eta EAEko 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalak (71) barnean hartzen dituen errolda-izaerako landa-lana. Azterketa egiteko, horrela estratifikatu dira udalak: 5.000 biztanletik 20.000ra artekoak, 20.000 biztanletik gorakoak eta hiru hiriburuak.
- 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako tokiko administrazioen lagin adierazgarri bat oinarri hartuta (80 udal²), egindako landa-lana; 5.000 biztanletik beherako udalerrien % 44,4 dira horiek, eta estratu horretan sartzen diren udalerrietako biztanleen % 43,6 bizi dira aipatutako udalerririk horietan.
- Administrazio baten edo zenbaiten mendekoak diren, edo haiek % 100ean partaidetutako erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioei egindako errolda-izaerako landa-lana. Multzo honetan sartu dira partaidetza publikodun erakundeak baldin eta, 2016an, administrazioaren aldetik 500.000 eurotik gorako transferentziak jaso badituzte (guztira 51 erakunde³).

² Bi udal gehiago sartu dira 2014ko EAEko Kulturako finantzaketari eta gastu publikoari buruzko azterlanean baino (78tik 80ra igaro dira).

³ Hiru erakunde gutxiago 2014ko EAEko Kulturako finantzaketari eta gastu publikoari buruzko azterlanean baino (54tik 51ra igaro dira).

Ondorengo irudian xehatzen da azterketaren irismena, kontsultatutako erakunde mota desberdinen arabera.

1. irudia . **Aztergai den unibertsoa eta laginaren irismen-ratioak**

	UNIBERTSOA		LAGINA		LAGINAREN IRISMENA	
	Erakunde kop.	Biztanleria	Erakunde kop.	Biztanleria	Erakundeen %	Biztanleria- ren %
Udalak	251	2.171.886	151	2.045.276	60,2	94,2
<5.000 biztanle	180	224.512	80	97.902	44,4	43,6
5.000-20.000 biztanle	53	542.011	52	542.011	-	-
>20.000 biztanle	16	641.252	16	641.252	-	-
Hiriburuak	3	764.111	3	764.111	-	-
Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	51	-	51	-	-	-
Foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritza	4	2.171.886	4	2.171.877	-	-
GUZTIRA	306	2.172.877	206	-	67,6	-

Datuen bilketa eta azterketa ez da kultura-sailetara edo -arloetara mugatu; aitzitik, beste esparru edo alor batzuek kultura-arloko gastu bat egitera bideratutako partiden inguruko informazioa ere eskuratu eta erantsi da.

Eranskinean kontsulta daitezke aztertutako kontzeptuen definizioak, bai eta aplikatu den kontsolidazio edo finkatze bikoitzeko prozesua ere.

2. Testuinguruaren azterketa

Azterlanekoa bezalako serie historiko bat edukitzeak bide ematen du urteetan zehar sortzen diren joerak aztertzeko. Irakurketa hori, nolana ere, hainbat inguruabarrek baldintza lezakete, eta baliteke desbideratze esanguratsuak sortzea ere bilakaera-ildo orokorrean. Arrazoi horregatik, kapitulu honetan laburbiltzen dira 2016. urtean kultura-arloko gastu publikoan intzidentzia edo eragin adierazgarria izan duten elementu nabarmenenak. Gako horiek hartu beharko dira kontuan datuen analisisa egiteko orduan.

Lehendabiziko azalpena Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuari buruzkoa da. Gogora ekarri behar da, 2014an 18,4 milioi euro bideratu behar izan zirela kalte-ordain batera, Praileaitzeko kobazuloa Kultur Ondasun Sailkatu deklaratu zelako. EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai batek zenbateko hori zehaztu zuen harrobiaren ustiaketaren parte bat galtzearen kalte-ordaintzat. Partida horrek aurrekontuaren hazkunde nabarmena sortu zuen esandako ekitaldian, salbuespenezko gorakada eragin baitzuen haren bilakaeran. Horrela bada, Eusko Jaurlaritzaren gastuak 2016an izandako jaitsiera -2014koarekin alderatuta- aipatutako partida horrek azaltzen du.

2016ko beste ohiz kanpoko elementu bat Donostiak Europako kultura-hiriburu gisa izan zituen ospakizunak izan ziren. Hirian eta lurralde guztian izan zuen inpaktu kulturaletik harago, hazkunde nabaria ekarri zion kulturaren eta enpleguan egindako gastuari. Eta horrek zuzeneko eragina izan zuen Gipuzkoako emaitzen analisisan eta udal eta hiriburuetan izandako gastuetan. Eragina izan du, orobat, kultura-esparruen araberako azterketaren emaitzetan, programa gehienak kultura-ekintza modura kontabilizatu baitira.

Hirugarren gogoeta 2016an Gipuzkoako hiru udalerritan kultura-ekipamenduetan egin ziren gastuei buruzkoa da. Txostenean ikusiko den bezala, gastua handitzen ari da udaletako azpiegiturari dagokionez. Geroak erakutsiko du ea puntuala den edo, aldiz, etorkizunean finkatuko den joera bat.

Azkenik, zorra ordaintzeko (bankuetako kredituak) transferentzia publikoak ere kontabilizatu dira; horregatik, finantza-aktiboak eta -pasiboak hazi egin dira, aurreko edizioekin alderatuta.

Gogoan izan behar da Behatokiak, azterlanaren emaitza orokorren txostena ez ezik, oinarritzko adierazleen aukeraketa bat ere argitaratzen duela, eta adierazle horiek kulturako finantzaketari eta gastu publikoari buruzko begirada zorrotzen dutela. Horien artean, partida puntual, salbuespenezko eta iraupen laburreko horiek EAeko administrazioen aurrekontuetan eragiten dituzten desbideratzeen garrantzia kalkulatu da. Beraz, txosten honetan aurkezten diren datuen osagarri moduko bat da.


3. Kulturako gastuaren bilakaera 2008-2016

3.1. Kulturako gastu likidatuaren bilakaera

2016an, EAEko administrazio publikoen kulturako gastu likidatua 576,9 milioi eurokoa izan zen. Hamar euroatik lau udalei dagozkie (242,7 milioi euro), hamar euroatik hiru, berriz, erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioei (187,6 milioi euro) eta gainerakoa Eusko Jaurlaritzaren (67,7 milioi euro) eta foru-aldundien artean banatzen da (78,9 milioi euro).

Oro har, hautsi egin da gainbeherako dinamika, 2008tik administrazioaren maila desberdinetan hautemandakoa, eta 2010eko guztizko gastu likidatura hurbildu da. 2014ko datuekin alderatuta, erakunde guztien kulturako gastu likidatuaren batura % 10,0 handiagoa izan da (hau da, 52,2 milioi euro gehiagoko aurrekontua).

2. irudia. Kulturaren egindako gastua, erakunde motaren arabera (eurotan). 2008-2016



Aldaketa	Eusko Jauriaritza	Foru-aldundiak	Udalak	Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak
2008-2016	▲% 2,2	▼% 24,6	▼% 19,5	▲% 33,5
2014-2016	▼% 14,5	▲% 2,8	▲% 14,0	▲% 20,5


Administrazio-maila desberdinen kulturako gastu likidatuaren bilakaerak joera positiboa erakusten du aztertu den azkeneko aldi honetan. Hazkunde handiena erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan gertatu da; izan ere, % 20,5eko hazkundera izan baita sektore horretan (31,9 milioi euro gehiago). Mota horretako eragileek tratamendu berezitua eskatzen dute, erroldan aldaketak gertatzen baitira estatistikaren hurrenez hurrengo edizioetan. Zentzu horretan, zuhertasunez behatu behar da bilakaeraren analisia.

Udalek ere datu positiboak dituzte 2016an, % 14,0 gehiago gastu likidatuan (29,7 milioi euro), nahiz eta oraindik ez den iritsi 2008 eta 2010eko gastuen zifretara.

Kontuan eduki behar da Eusko Jauriaritzaren kulturako gastu likidatuaren baturak 2014koak baino zifra txikiagoak dituela, urte hartan salbuespenezko igoera izan baitzuen: 18,4 milioiko kalte-ordaina eman behar izan zion administrazioak harrobiari Praileaitzeko leizea babestegatik. Datu hori kontuan hartu gabe, kulturako gastuaren hazkundera garrantzitsua izan da (% 11 gehiago, hau da, ia 7 milioi euro).

Azkenik, foru-aldundiek 2014an baino % 2,8 gehiago bideratu dute aurrekontuetatik kulturara (2,1 milioi euro gehiago). 2008-2016 aldi guztia kontuan hartuta, % 24,6ko jaitsiera erregistratu da.

3. irudia . **Kulturako gastu likidatuaren bilakaera, erakunde motaren arabera (Oinarrizko indizea 100 = 2008). 2008-2016**




3.2. **Kulturako gastu likidatuak administrazio publikoen aurrekontuetan duen garrantzi erlatiboa**

2016an, kulturako gastu likidatuaren pisu erlatiboa, guztizko aurrekontuekin alderatuta, % 8,6koa izan zen udalen kasuan, % 2,8koa foru-aldundien kasuan, eta % 0,7koa Eusko Jaurlaritzarenean.

Udalak dira kulturaren arloan ahalegin handiena egiten duten administrazio publikoak. 2014ko pisu erlatiboa % 7,6 izan baldin bazen, 2016an hautsi egin da estatistikaren aurreko edizioetan hautematen zen beheranzko joera, eta puntu bat igo da.

4. irudia. **Kulturako gastu likidatua guztizko aurrekontuei dagokienez, administrazio-mailaren arabera (%). 2008-2016**



Aldaketa 2008-2016	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak
Kulturako aurrekontua	▲% 2,2	▼% 24,6	▼% 19,5
Aurrekontua, guztira	▲% 11,2	▼% 4,0	▼% 13,3


Aldaketa 2008-2016	Eusko Jaurlaritza	Foru-aldundiak	Udalak
Kulturako aurrekontua	▼% 14,5	▲% 2,8	▲% 14,0
Aurrekontua, guztira	▲% 3,1	▲% 6,9	▲% 0,8

2008tik, Eusko Jaurlaritzaren zifrak positiboan mantentzen dira: handitu egin dira guztizko aurrekontua eta kulturako aurrekontua, nahiz eta kulturako aurrekontuaren hazkundera txikiagoa den guztizko aurrekontuan izandakoa baino (% 2,2ko hazkundera kulturaren kasuan, eta % 11,2koa guztizko aurrekontuarenean).


Aldundi eta udalei dagokienez, guztizko aurrekontuan izandako jaitsiera kulturako gastu likidatuan islatzen da. Aldundietan jaitsiera handiagoa izan dela ikusi da: 2008tik 2016ra % 24,6 gutxitu da kulturako gastu likidatua; guztizko aurrekontuaren jaitsiera, aldiz, % 4,0koa izan da. Udaletan, nahiz eta kulturako gastu likidatua % 19,5 txikiagoa izan den –eta hori esandako gastuaren pisu erlatiboaren jaitsieran islatzen da–, oraindik ere kultura-arloan ahalegin handiena egiten duen administrazio maila da (% 9,3 2008an, eta % 8,6 2016an).

5. irudia. **Kulturako gastu likidatuaren eta guztizko aurrekontuen bilakaera (Oinarrizko indizea 100 = 2008), eta ahalegin kulturala (%), administrazio-mailaren arabera. 2008-2016**


Eusko Jaurlaritza



Foru-aldundiak



Udalak



- Ahalegin kulturala
- Kulturako gastu likidatua
- Aurrekontua, guztira

6. irudia. **Kulturako gastu likidatua eta guztizko aurrekontuak, administrazio-mailaren arabera (%)**. 2008-2016

Erakunde mota	Urtea	Kulturako gastu likidatua		Aurrekontua, guztira		Kulturako gastu likidatua, guztizko aurrekontuari dagokionez
		€	Bilakaera %	€	Bilakaera %	
Eusko Jaurlaritza	2008	66.187.953		9.317.300.321		% 0,7
	2010	76.014.402	% 14,8	10.327.556.000	% 10,8	% 0,7
	2012	67.030.544	% -11,8	10.246.437.704	% -0,8	% 0,7
	2014	79.165.372	% 18,1	10.053.537.686	% -1,9	% 0,8
	2016	67.662.317	% -14,5	10.364.638.886	% 3,1	% 0,7
Foru-aldundiak	2008	104.678.140		2.911.976.568		% 3,6
	2010	89.438.424	% -14,6	3.064.987.565	% 5,3	% 2,9
	2012	78.979.640	% -11,7	2.897.406.350	% -5,5	% 2,7
	2014	76.764.863	% -2,8	2.616.316.872	% -9,7	% 2,9
	2016	78.889.169	% 2,8	2.795.683.118	% 6,9	% 2,8
Udalak	2008	301.425.557		3.245.391.087		% 9,3
	2010	294.970.482	% -2,1	3.380.703.915	% 4,2	% 8,7
	2012	216.102.317	% -26,7	2.731.467.008	% -19,2	% 7,9
	2014	212.974.567	% -1,4	2.791.249.926	% 2,2	% 7,6
	2016	242.710.992	% 14,0	2.814.769.041	% 0,8	% 8,6


2014an ikusi zen bezala, udalerrri txikiak dira (5.000 biztanlez azpikoak) kulturaren ahalegin handiena egiten dutenak (% 9,6). Ahalegin hori 2008ko zifretara iristen ez bada ere, nabarmen hazi da 2010-2014 aldiarekiko, orduan, % 8,0 eta 8,9 artean kokatu baitzen.

Nolanahi ere, kulturako gastu likidatuaren hazkunde handiena hiriburuetan gauzatu da, % 23,9 hazi baita 2014koarekin alderatuta. Hala, hiriburuak kulturaren egindako ahalegina 2014ko % 6,9tik, 2016ko % 8,5era igaro da.

Gainerako udalerrietan ere goranzko joera izan du kulturako aurrekontuak. Hala, 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerriek 2014an kulturaren arloan % 8,1eko ahalegina egin bazuten, 2016an % 8,3koa izan da ahalegin hori.

20.000 biztanletik gorako udalerriei dagokienez, kulturaren 2016an egin duten ahalegina % 8,7koa izan da (% 8,0koa 2014an), hau da, udal guztien batez besteko ahaleginaren gainetik kokatu dira.

7. irudia. Kulturako gastu likidatua udalen guztizko aurrekontuei dagokienez, udalerraren neurriaren arabera (%). 2008-2016




2008-2016 aldaketa	<5.000 biztanle	5.000 – 20.000 biztanle	>20.000 biztanle	Hiriburuak
Kulturako aurrekontua	▼% 36,9	▼% 26,9	▲% 5,6	▼% 21,1
Aurrekontua, guztira	▼% 32,8	▼% 14,4	▼% 6,3	▼% 10,2

2008-2016 aldaketa	<5.000 biztanle	5.000 – 20.000 biztanle	>20.000 biztanle	Hiriburuak
Kulturako aurrekontua	▲% 14,8	▼% 1,7	▲% 15,5	▲% 23,9
Aurrekontua, guztira	▼% 1,3	▼% 3,8	▲% 6,7	▲% 0,7

3.3. Bestelako sail eta arloek kulturaren egindako gastua

Harritzekoa ez denez, kulturara bideratutako gastuaren parterik handiena administrazio publikoetako kultura sailetatik egiten da. 2016an, foru-aldundietako beste eremu batzuetatik kulturaren egindako gastua % 4,1ekoa izan da, Eusko Jaurlaritzaren kasuan % 12,6koa eta, udalenean, berriz, % 14,2koa.

8. irudia. **Kulturakoak ez diren sailen kulturako gastu likidatua, administrazio-mailaren arabera (%). 2016**



Eusko Jaurlaritzaren eta udalen kasuan azpimarratzekoa da, bai zifra absolutuetan eta bai erlatiboetan, hazi egin dela beste eremu batzuen kulturako gastu likidatua. Jaurlaritzan, 2014arekin alderatuta, % 26,1 igo da eta bere garrantzi erlatiboa % 9,7koa izatetik % 14,2koa izatera pasatu da; udalei dagokienez, aurrekontua % 61,6 handitu da eta % 8,9ko pisu erlatiboa izatetik, % 12,6koa izatera igaro da. Hala ere, % 41,7 murriztu da foru-aldundien kasuan, % 7,3ko garrantzi erlatiboa izatetik % 4,1ekoa izatera pasatu baita.

9. irudia. **Kulturako gastu likidatua, berori gauzatu duten sailei dagokienez, administrazio-mailaren arabera (euroak eta % horizontala). 2008-2016**

Erakunde mota	Urtea	Kultura Saila		Bestelako arloak		Kulturako gastua guztira	
		€	%	€	%	€	%
Eusko Jaurlaritzak	2008	57.229.844	86,5	8.958.109	13,5	66.187.953	100,0
	2010	65.952.485	86,8	10.061.917	13,2	76.014.402	100,0
	2012	56.830.594	84,8	10.199.949	15,2	67.030.544	100,0
	2014	71.525.382	90,3	7.639.990	9,7	79.165.372	100,0
	2016	58.031.835	85,8	9.630.481	14,2	67.662.317	100,0
Foru-aldundiak	2008	103.549.920	98,9	1.128.220	1,1	104.678.140	100,0
	2010	89.388.424	99,9	50.000	0,1	89.438.424	100,0
	2012	78.360.020	99,2	619.620	0,8	78.979.640	100,0
	2014	71.197.658	92,7	5.567.206	7,3	76.764.863	100,0
	2016	75.642.283	95,9	3.246.885	4,1	78.889.169	100,0
Udalak	2008	261.180.398	86,6	40.245.159	13,4	301.425.557	100,0
	2010	250.000.083	84,8	44.970.399	15,2	294.970.482	100,0
	2012	195.291.075	90,4	20.811.242	9,6	216.102.317	100,0
	2014	194.042.651	91,1	18.931.916	8,9	212.974.567	100,0
	2016	212.108.919	87,4	30.602.073	12,6	242.710.992	100,0

Udaletan 2014tik 2016ra izan den bilakaera aztertuz gero, ikusten da, biztanle aldetik udalek izan dezaketen tamaina alde batera utzita, kulturaz kanpoko sailen kulturako gastu likidatuak gora egin duela, eta horrek eutsi egiten diola 2014an jada hautematen hasitako joerari.

Hazkunde handiena hiriburuetan gertatu da. 2014an ikusi zen hazi egin zela 2012arekin alderatuta, eta 2016an errepikatu egin da, 12 milioitik 18,3 milioi eurotara igaro baita.

Gainerako udalen artean, 20.000 biztanletik gorakoak nabarmentzen dira (% 12 egikaritu da beste eremu batzuetatik), hain zuzen ere, ia bikoiztu dituzte 2014ko proportzioak (garai hartan % 7ko pisua zuten). Nabarmentzekoa da bai ekipamenduetan eta bai eraikinen mantentze-lanetan egindako inbertsioen pisua.

Azkenik, 5.000 biztanlez azpiko herrietako udalei dagokienez, azpimarratzekoa da % 45eko hazkundera izan dutela 2014koarekiko; 5.000-20.000 biztanle arteko udalerrien udaletan, berriz, % 34ko hazkundera izan dute 2014arekiko.

10. irudia . Kulturako gastu likidatua, udaletan gastu hori gauzatu duten sailei dagokienez, udalerrriaren neurriaren arabera (euroak eta %). 2008-2016

Udalerriaren neurria	Urtea	Kultura Saila		Bestelako arloak		Kulturako gastua guztira	
		€	%	€	%	€	% horizontala
<5.000 biztanle	2008	37.225.044	84,2	7.004.246	15,8	44.229.290	100,0
	2010	32.740.976	91,3	3.134.856	8,7	35.875.832	100,0
	2012	27.851.438	93,8	1.837.525	6,2	29.688.963	100,0
	2014	23.080.671	95,0	1.207.982	5,0	24.288.653	100,0
	2016	26.135.465	93,7	1.752.679	6,3	27.888.144	100,0
5.000-20.000 biztanle	2008	72.831.331	97,0	2.239.908	3,0	75.071.239	100,0
	2010	69.167.088	94,9	3.685.649	5,1	72.852.737	100,0
	2012	52.140.821	95,5	2.456.728	4,5	54.597.549	100,0
	2014	53.789.838	96,4	2.001.111	3,6	55.790.949	100,0
	2016	52.166.780	95,1	2.679.264	4,9	54.846.045	100,0
>20.000 biztanle	2008	57.897.542	94,9	3.087.651	5,1	60.985.193	100,0
	2010	57.432.169	92,7	4.532.084	7,3	61.964.253	100,0
	2012	49.063.244	89,6	5.699.128	10,4	54.762.372	100,0
	2014	52.086.373	93,4	3.659.856	6,6	55.746.229	100,0
	2016	56.567.234	87,9	7.808.814	12,1	64.376.048	100,0
Hiriburuak	2008	93.226.481	77,0	27.913.354	23,0	121.139.835	100,0
	2010	90.659.850	72,9	33.617.810	27,1	124.277.660	100,0
	2012	66.235.572	86,0	10.817.861	14,0	77.053.433	100,0
	2014	65.085.769	84,4	12.062.967	15,6	77.148.735	100,0
	2016	77.239.440	80,8	18.361.316	19,2	95.600.756	100,0
Udal guztiak	2008	261.180.398	86,6	40.245.159	13,4	301.425.557	100,0
	2010	250.000.083	84,8	44.970.399	15,2	294.970.482	100,0
	2012	195.291.075	90,4	20.811.242	9,6	216.102.317	100,0
	2014	194.042.651	91,1	18.931.916	8,9	212.974.567	100,0
	2016	212.108.919	87,4	30.602.073	12,6	242.710.993	100,0

3.4. Erakunde mota bakoitzaren kulturako gastu likidatuaren bilakaera

2016an, kulturean egindako gastua, gastu horren sailkapen ekonomikoaren arabera, aurreko edizioetako dinamika berberetatik doa. Gastu publikoaren gehiengoa gastu arruntera bideratu da: 10 eurotik 8 eta 9 euro artean gastu mota horretakoak dira.

Eusko Jaurlaritzan, % 81,5ekoa izan da gastu arrunta, foru-aldundietan % 83,6koa, udalei dagokienez % 88,1ekoa eta erakunde autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan, berriz, % 86,5ekoa. Proportzioan, oraindik ere udaletan du garrantzi handiena gastu arruntak.

Inbertsioetara eta kapital-eragiketetara bideratutako aurrekontua % 10 eta % 20 artekoa da administrazio desberdinetan, Eusko Jaurlaritzakoa (% 18,5) nabarmenduta. Finantza-aktiboak eta -pasiboak erakunde autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan soilik agertzen dira, % 5,2ko pisuarekin.

Kulturako aurrekontu publikoaren bilakaera bere izaera ekonomikoaren arabera aztertzen badugu, ikusten da gastu arruntak hazkunde handiagoa izan duela erakunde autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan (% 25,5 gehiago 2016an, 2008an baino) eta Eusko Jaurlaritzan (% 15,5 gehiago). Bestalde, finantza-aktiboak eta -pasiboak izan dira aldaketa handiena izan dutenak.

11. irudia. **Kulturako gastua, gastuaren izaera ekonomikoaren eta erakunde motaren arabera (euroak eta %). 2008-2016**

Izaera ekonomikoa	Urtea	Eusko Jaurlaritza		Foru-aldundiak		Udalak		Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Gastu arrunta	2008	47.712.797	72,1	64.016.192	61,2	229.738.885	76,2	129.299.117	92,0
	2010	52.146.794	68,6	56.369.013	63,0	227.405.112	77,1	119.439.236	90,6
	2012	53.366.145	79,6	53.967.403	68,3	202.646.631	93,8	138.321.163	83,2
	2014	65.652.143	82,9	60.578.382	78,9	196.971.148	92,5	135.146.496	86,8
	2016	55.124.767	81,5	65.922.576	83,6	213.761.898	88,1	162.331.623	86,5
Kapital-gastua	2008	14.348.144	21,7	37.446.544	35,8	71.543.370	23,7	11.178.519	8,0
	2010	20.036.642	26,4	29.884.967	33,4	67.436.080	22,9	12.339.365	9,4
	2012	12.853.641	19,2	13.926.494	17,6	13.345.646	6,2	27.732.748	16,7
	2014	13.511.079	17,1	15.099.628	19,7	15.600.918	7,3	20.383.385	13,1
	2016	12.537.550	18,5	12.966.593	16,4	28.949.094	11,9	15.526.814	8,3
Finantza-aktiboak eta -pasiboak	2008	4.127.012	6,2	3.215.404	3,1	143.302	0,0	44.041	0,0
	2010	3.830.966	5,0	3.184.444	3,6	129.290	0,0	58.109	0,0
	2012	810.758	1,2	11.085.743	14,0	110.040	0,1	174.164	0,1
	2014	2.150	0,0	1.086.853	1,4	402.501	0,2	225.790	0,1
	2016	0	0,0	0	0,0	0	0,0	9.788.281	5,2
GUZTIRA	2008	66.187.953	100,0	104.678.140	100,0	301.425.557	100,0	140.521.677	100,0
	2010	76.014.402	100,0	89.438.424	100,0	294.970.482	100,0	131.836.710	100,0
	2012	67.030.544	100,0	78.979.640	100,0	216.102.317	100,0	166.228.075	100,0
	2014	79.165.372	100,0	76.764.863	100,0	212.974.567	100,0	155.755.671	100,0
	2016	67.662.317	100,0	78.889.169	100,0	242.710.992	100,0	187.646.717	100,0





2016. urteko gastu arruntari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu foru-aldundiek, udalek eta erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioek gastu horren % 45 baino gehiago bideratzen dutela zerbitzu ez-estrukturaletara, hau da, iraunkorrak ez diren zerbitzu eta jarduketara kulturalen kontratazioei dagozkien gastuak dira (% 48,9 foru-aldundien kasuan, % 57,9 udaletan eta % 45,5, berriz, erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetan); eta % 20, gutxi gorabehera, hornidurara eta mantentze-lanetara. Eusko Jaurlaritzan, ordea, gastu arruntaren zatirik handiena beste gastuetara eta hornidurara eta mantentze-lanetara bideratzen da, eta zerbitzu ez-estrukturaletako gastua hutsaren hurrengoa da.

Estatistikaren azken edizioari dagokionez, zerbitzu ez-estrukturalen datuak handitu egin dira, proportzioan, udaletan (2014an % 49 izatetik 2016an % 58 izatera igaro dira) baina jaitsi, aldiz, foru-aldundietan (% 54tik % 49ra), bai eta erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan ere (% 49 2014an, baina % 46 2016an, nahiz eta, zifra absolutuetan, 6 milioi euroko hazkundera izan den, % 18,5ekoa, alegia)

Hornidura- eta mantentze-lanetako gastuak igo egin dira proportzioan foru-aldundietan (% 15,1etik % 22,2ra igo dira, hau da, 582 mila euroko hazkundera izan dute), bai eta Eusko Jaurlaritzan ere (% 8tik % 36ra pasatu baita, baina zifra absolutuetan murrizketa izan dute, 153 mila eurokoa hain zuzen ere).

Laguntzarako langileen gastuei dagokienez, ikusten da igo egin direla Eusko Jaurlaritzan (2014an % 2 izatetik 2016an % 15 izatera igaro dira), bai eta –hori bai, neurri apalagoan– erakunde autonomo eta sozietate publikoetan ere (% 10etik % 16ra). Foru-aldundietan, aldiz, murriztu egin da (% 9tik % 5era), eta udaletan ere bai (% 10etik % 8ra, nahiz eta zifra absolutuetan gora egin duen 1,4 milioi eurotan).

12. irudia. **Gastu arrunta ondasun eta zerbitzuetan, zerbitzu eta erakunde motaren arabera (%)**. 2016




- Kulturako egitura-zerbitzuak
- Zerbitzu ez-egiturazkoak
- Hornikuntza eta mant.
- Beste gastu batzuk
- Laguntza-langileak

Kultura-esparruei dagokienez, azpimarratzekoa da arteen eta industrien presentzia Eusko Jaurlaritzaren, udalen eta erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen gastuan, izan ere, gastuaren % 65etik gora baitagokio. Foru-aldundietan, ondarea da nagusitzen den esparrua.

Bilakaerari dagokionez, ikusten da gastuak ondarean eta arte eta industrietan izan duen joera gorabeheratsua dela 2008koarekiko. Ondareko gastuak behera egin du 2008tik hona ia administrazio guztietan, salbu eta erakunde autonomoetan, sozietate publikoetan eta fundazioetan. Arte eta industrietan egindako gastuaren kasuan, berriz, erakunde autonomoetan eta kidekoetan ez ezik, Eusko Jaurlaritzan ere igo da.

13. irudia. **Kulturako gastuaren bilakaera ondarean eta arte eta industrietan, erakunde motaren arabera (Oinarrizko indizea 100 = 2008). 2008-2016**



14. irudia. **Kulturako gastua, kultura-esparruen eta entitate motaren arabera (euroak eta %).**
2008-2016

Esparruak	Urtea	Eusko Jaurlaritza		Foru-aldundiak		Udalak		Erakunde autonomoak eta sozietate publikoak	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Ondarea guztira ¹	2008	30.496.030	46,1	70.406.879	67,3	60.758.816	20,2	24.972.034	17,8
	2010	30.388.806	40,0	62.258.229	69,6	54.216.125	18,4	34.137.709	25,9
	2012	22.595.642	33,7	42.591.571	53,9	34.828.657	16,1	37.679.436	22,7
	2014	37.499.058	47,4	43.465.100	56,6	29.036.477	13,6	32.624.058	20,9
	2016	18.350.971	27,1	41.684.581	52,8	39.271.339	16,2	34.364.676	18,3
Arteak eta industriak guztira ²	2008	34.437.505	52,0	31.131.223	29,7	163.392.612	54,2	100.863.641	71,8
	2010	42.417.764	55,8	24.742.436	27,7	186.113.524	63,1	82.539.474	62,6
	2012	43.206.775	64,5	33.304.257	42,2	137.247.327	63,5	114.915.669	69,1
	2014	40.525.686	51,2	26.869.159	35,0	146.743.846	68,9	111.903.286	71,8
	2016	45.263.204	66,9	28.610.790	36,3	160.553.252	66,1	131.307.308	70,0
Jaiak eta herri-kultura	2008	0	-	281.023	0,3	37.112.523	12,3	6.077.030	4,3
	2010	31.910	0,0	24.334	0,0	31.830.164	10,8	5.699.264	4,3
	2012	0	-	175.706	0,2	29.173.736	13,5	4.995.485	3,0
	2014	0	-	611.343	0,8	25.205.602	11,8	4.462.684	2,9
	2016	0	-	120.399	0,2	27.957.279	11,5	4.860.258	2,6
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2008	1.254.418	1,9	2.859.015	2,7	40.161.606	13,3	8.608.972	6,1
	2010	3.175.922	4,2	2.413.425	2,7	22.810.669	7,7	9.460.263	7,2
	2012	1.228.127	1,8	2.908.106	3,7	14.852.597	6,9	8.637.485	5,2
	2014	1.140.628	1,4	5.819.261	7,6	11.988.642	5,6	6.765.642	4,3
	2016	4.048.142	6,0	8.473.399	10,7	14.929.121	6,2	17.114.476	9,1
GUZTIRA	2008	66.187.953	100,0	104.678.140	100,0	301.425.557	100,0	140.521.677	100,0
	2010	76.014.402	100,0	89.438.424	100,0	294.970.482	100,0	131.836.710	100,0
	2012	67.030.544	100,0	78.979.640	100,0	216.102.317	100,0	166.228.075	100,0
	2014	79.165.372	100,0	76.764.863	100,0	212.974.567	100,0	155.755.671	100,0
	2016	67.662.317	100,0	78.889.169	100,0	242.710.992	100,0	187.646.717	100,0

¹ Arlo hauek hartzen ditu barnean: ondarea eta arkeologia; liburutegiak; museoak eta artxiiboak.

² Honako hauek hartzen ditu barnean: antzerkia eta dantza; musika; ikusizko arteak; zinema eta ikus-entzunezkoak; literatura eta argitalpena; kultura-ekintza eta bertsolaritza.

2016an, Eusko Jaurlaritzaren kulturako gastu likidatuak funtsezko aldaketak izan ditu 2014koarekin alderatuta, aurreko edizioekin proportzioa gordetzen duten zifrak berreskuratu baititu. Jada aipatu den 2014ko 18,4 milioi euroko kalte-ordainak guztiz bihurritu du gastuaren bilakaeraren azterketa.


Zentzu horretan, aipatzekoak dira, 2016an, ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten murrizketa eta transferentzia arrunten hazkundea. 2016an, transferentzietara (arruntak eta kapitalarenak) bideratutako gastu likidatua 10 euroatik 8,6 izan da. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak, berriz, 7,1 eko pisua du.

Langile-gastuak egonkor mantentzen direla esan daiteke, 4,2 milioi euro inguruan; eta inbertsioek gainbeherako joerari eusten diote (2012an 3 milioi euro ingururen balioko inbertsioak egin ziren, 2014an, 100 mila eurokoak, eta 2016an, berriz, 28 mila eurokoak).


Gastu likidatuaren helmugari dagokionez, arte eta industriei ematen zaie oraindik lehentasuna, hazi egin baita sektore horretara bideratutako zenbatekoa, aurreko edizioekin alderatuta. Ondareko gastua, ordea, nabarmen murriztu da, aipatutako kalte-ordainaren partida aintzat hartu gabe ere.

lido horretatik, ikusten da 2016an, Eusko Jaurlaritzako 10 euroatik 2,71 ondare sektoreko gastura bideratu direla, 10 euroatik 6,69 arte eta industrietara eta, azkenik, 10 euroatik 0,60 zuzendaritzara eta zerbitzu orokorretara.

15. irudia. Eusko Jaurlaritzaren kulturako gastu likidatua kapitulu ekonomikoaren arabera (%).
2008-2016



16. irudia. Eusko Jaurlaritzaren kulturako gastu likidatua kultura-esparruen arabera (%).
2008-2016



Foru-aldundiak

Foru-aldundiek transferentzietara bideratu dute kulturako gastu likidatuaren % 60 baino gehiago, 48,8 milioi euro guztira. Zentzu horretan, transferentzia arruntak dira gehienak, 2016ko gastuaren % 51,3, hau da, 2012an baino % 18,9 gehiago. Kapitalaren transferentziak, 2016an, kulturako gastu likidatuaren % 10,0 izan dira.


Langile-gastuak dira pisu handieneko hurrengo kapitulua, 17 milioi euro (% 21,5). Mantentzen den kapitulua da beheranzko joera txiki batekin. Eusko Jaurlaritzaren kasuan bezala, foru-aldundien inbertsioek ere beherantz egin dute aztertu diren aldietan; hala, 2008an 20,2 milioi euro inbertizetik, 2012an 5,6 milioi inbertitzera pasatu ziren, harik eta 2016ko 4,6 milioi eurotaraino iritsi arte (% 77,1eko jaitsiera, 2008arekiko).

Gastu likidatuaren noranzkoari dagokionez, erdia baino gehiago (% 52,8) ondarera bideratu da, % 36,3 arte eta industrietara, % 10,7 zuzendaritza eta zerbitzu orokorretara, eta % 1 baino gutxiago jaietara eta herri-kulturara.


Gastuaren noranzkoaren bilakaera azterturik, ikusten da ondarera bideratutako gastua jaitsi egin dela apur bat 2014arekiko –% 4,1 gutxiago– eta jaitsiera nabarmenagoa hautematen da 2008arekiko (% 40,8 gutxiago, 2008an 70,4 milioi euroko gastua egitetik 2016an 41,7 milioikoa egitera pasatu baita). Arte eta industriei dagokionez, aipatzekoa da kulturaren esparru horretako gastuaren pisu erlatiboa areagotu egin dela, eta termino absolutuetan aldiz, murriztu: 2008an 31,1 milioi euroko gastua egin zen arte eta industrietan (% 29,7) eta 2016an 28,6 milioi eurokoa (% 36,3).

Azkenik, azpimarratu behar da zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako gastua etengabe handitu dela, 2014ko 5,8 milioitik 2016ko 8,5 milioira pasatu baita.

17. irudia. Foru-aldundien kulturako gastu likidatua, kapitulu ekonomikoaren arabera (%).
2008-2016



18. irudia. Foru-aldundien kulturako gastu likidatua, kultura-esparruen arabera (%).
2008-2016



Kulturako gastu likidatuaren banaketa tokiko administrazioen kapitulu ekonomikoen arabera aztertzen badugu, agerian geratzen da bakoitzaren pisua: transferentzia arruntak % 38,4 izan dira 2016an, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak % 27,6, eta langile-gastuak, berriz, % 21,9.

Bilakaerari dagokionez, ia kapitulu guztietan izan da hazkundera, 2014arekin alderatuta; finantza-aktiboak eta -pasiboak izan dira salbuespen bakarra. Hazkunde proportziokoa izan da hiru kapitulu nagusietan, I. kapitulua -langile-gastuak- apur bat nabarmendu bada ere.

Langile-gastuak % 9,9 hazi dira 2014koekin alderatuta; 48,4 milioi eurotik 53,1 milioi eurora igaro dira. 2008ari dagokionez ere, % 9,0 igo da. Hala ere, ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei eta transferentzia arruntei dagokienez, nahiz eta, 2014koekin alderatuta gastuen zifrak % 8 igo diren, ez dira iristen 2008ko emaitzetara.


Azkenik, azpimarratzekoa da inbertsioen hazkundera (2014an 10 milioi euro izatetik, 2016an 15 milioi euro izatera pasatu da), bai eta kapital-transferentzien gorakada nabarmena ere, termino absolutuetan, 2014ko 5,5 milioitik 2016ko 14 milioi euroraino igo baitira. Bi kasuetan, hazkundera bai termino absolutuetan eta bai erlatiboetan islatzen da.

Eta gastuaren hazkundera ispilatu da kultura-esparruetan ere. Azpimarratzekoa da ondarean izandako hazkunde nabarmena. Esparru hori ia aurrekontuaren erdira murriztuta zegoen 2008tik, urte hartan 60,8 milioi euro izatetik 2014an 29,0 milioi izatera pasatu baitzen; 2016an, berriz, goranzko joera berreskuratu du, 39,2 milioi eurotan kokatu delarik.


Arte eta industriei dagokienez, proportzioan jaitsi badira ere, termino absolutuetan igoera txiki bat izan dute; hala, 2014an, 146,7 milioi euroko gastua izan bazuten, 2016an, 160,5 milioi euroraino iritsi da gastu hori.

Jai eta herri-kulturako eta zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako aurrekontua ere handitu da 2014koarekiko, eta, horrela, aldatu egin da 2008tik hona esparru horietara bideratutako gastuak izan duen pixkanakako jaitsieraren joera.

19. irudia. **Udalen kulturako gastu likidatua kapitulu ekonomikoaren arabera (%).**
2008-2016



20. irudia. Udalen kulturako gastu likidatua kultura-esparruen arabera (%). 2008-2016




Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak

Bai txostenean eta bai estatistikaren aurreko edizioetan adierazi bezala, zenbait erakunde sartu eta beste batzuk desagertu izanak ez du aholkatzen alderaketa egitea, errealitate desberdinak diren neurrian.


Hala ere, azpimarratzekoa da, aurreko edizioan ikusten zen bezala, erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen gastuari dagokionez, 10 eurotik 8 I. eta II. kapituluei dagozkiela: 2016an, 72,4 milioi euro bideratu ziren langile-gastuetara, eta 84,6 milioi euro ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetara.

Gastuaren helmugari dagokionez, aurreko edizioetan bezala, arte eta kultura industrien esparrua da aipagarriena, aurrekontuko 10 eurotik 7, hain zuzen, sektore horretara bideratu baitira.

21. irudia. Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen kulturako gastu likidatua kapitulu ekonomikoaren arabera (%). 2008-2016



22. irudia. Erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen kulturako gastu likidatua kultura-esparruen arabera (%). 2008-2016



3.5. Hedabideetan egindako gastuaren bilakaera


Hedabideetan egindako gastu kontsolidatuak gora egin du 2016an, 151,9 milioi eurora iritsi baita, hau da, 2014an baino % 21,8 gehiago. Aipatzekoa da, 2010etik, lehen aldia dela mota honetako gastua handitzen dela.

Eusko Jaurlaritzak hedabideetara 2016an bideratu duen gastua 124,8 milioi eurora iritsi da. Kopuru horren zatirik handiena (% 94,8) transferentzia arruntei dagokie, 118,4 milioi euro; finantza-aktiboetarako dagokien gastua, berriz, 6,3 milioi euro izan da.

Foru-aldundiek, 2016an, aurrekontuaren % 75,3 kapital-transferentzietara bideratu dute, eta % 24,7 transferentzia arruntetara. Foru-aldundiek hedabideetan egin duten gastuaren guztizkoa % 53,4 jaitsi da aztertu den azkeneko aldi honetan.

Aztertu den estatistikaren azkeneko aldiaren (2014-2016) bilakaeran ikusten da handitu egin dela ondare-arloko gastua tokiko herri-administrazioetan; 20.000 biztanletik gorako udaletan gertatu da aldaketarik handiena, % 48,6 hazi baita aipatutako gastua. Arte eta industriei dagokienez, berriz, aztertu diren estratu desberdinetan gastuak gora egin duela ikusten da, baina hiriburuak izan dira igoera handiena izan dutenak (+% 37,2). Aurrez iruzkindu bezala, jaietako eta herri-kulturako aurrekontuak alderantzizko joera izan du, hazkunde handiena udalerrri txikienetan izan baitu (+% 31,3koa 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan). Zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako gastuari dagokionez, hiriburuetan izan duen % 84,4ko hazkundera nabarmentzen da eta % 54,9ko murrizketa, aldiz, 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietako udaletan.

Bilakaera epe luzeagoan aztertzen bada, 2010etik 2016ra, beste zifra batzuk ateratzen dira. Lortu diren datuek beheranzko joerak erakusten dituzte. Ondarea udalerrri guztietan jaitsi da 2010etik, 20.000 biztanlez gorakoetan izan ezik, horietan % 3,4 hazi baita; jaitsiera handiena udalerrri txikienetan izan du (-% 46,0, 2010ean 10,5 milioi euroko gastua izatetik 2016an 5,7 milioi izatera igaro baitira). Arte eta industrietako aurrekontua estratu guztietan murriztu da, baina neurri txikiagoan ondarean egindako gastua baino; esparru horretan erregistratutako balio handiena 5.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan gauzatu da. Jaietako eta herri-kulturako aurrekontuak ere beherantz egin du 2010etik; hiriburuak (-% 25,5) eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak (% 10,7) izan dira jaitsiera handiena izan dutenak. Eta, azkenik, zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako gastuek ere jaitsiera erregistratu dute 2010etik, hiriburuetan izan ezik, non esparru horretako aurrekontua % 50 baino gehiago igo baita, 5,7 milioi eurotik 8,9 milioi euroraino.

36. irudia. **Kulturako gastua kultura-esparruaren eta udalerriaren neurriaren arabera (%)**. 2010-2016



37. irudia. **Udalen kulturako gastua kultura-esparruen eta udalerraren neurriaren arabera (euroak eta %). 2010-2016**

Kultura-esparrua	Urtea	<5.000 biztanle		5.000-20.000 biztanle		> 20.000 biztanle		Hiriburuak		Udal guztiak	
		€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Ondarea	2010	10.490.247	28,5	9.506.587	12,7	13.118.737	17,9	33.321.492	24,2	66.437.063	20,6
	2012	6.463.108	21,5	9.160.794	15,9	10.961.962	18,0	21.224.458	22,7	47.810.322	19,7
	2014	5.392.822	21,8	7.214.174	12,3	9.126.497	14,7	19.830.325	20,9	41.563.818	17,3
	2016	5.669.479	20,0	8.985.109	15,4	13.564.856	19,2	23.295.411	18,6	51.514.855	18,2
Ondarea eta arkeologia	2010	2.543.078	6,9	684.561	0,9	3.309.496	4,5	10.505.921	7,6	17.043.056	5,3
	2012	1.425.837	4,7	1.022.939	1,8	609.483	1,0	1.147.264	1,2	4.205.523	1,7
	2014	542.227	2,2	244.826	0,4	146.423	0,2	220.537	0,2	1.154.013	0,5
	2016	190.271	0,7	1.624.198	2,8	4.748.698	6,7	770.216	0,6	7.333.382	2,6
Liburutegiak	2010	5.967.592	16,2	6.959.615	9,3	7.651.072	10,4	8.016.450	5,8	28.594.729	8,9
	2012	3.983.417	13,2	6.478.149	11,2	7.493.194	12,3	8.580.383	9,2	26.535.143	10,9
	2014	3.314.272	13,4	6.167.478	10,5	6.977.588	11,3	8.483.373	9,0	24.942.712	10,4
	2016	4.471.973	15,8	6.215.331	10,6	7.282.052	10,3	10.363.434	8,3	28.332.790	10,0
Artxiboak	2010	294.380	0,8	494.916	0,7	819.840	1,1	2.019.925	1,5	3.629.061	1,1
	2012	105.240	0,3	568.266	1,0	940.165	1,5	2.010.073	2,1	3.623.744	1,5
	2014	134.221	0,5	295.996	0,5	769.403	1,2	1.575.868	1,7	2.775.488	1,2
	2016	308.341	1,1	236.449	0,4	402.269	0,6	2.108.911	1,7	3.055.970	1,1
Museoak	2010	1.685.197	4,6	1.367.495	1,8	1.338.329	1,8	12.779.196	9,3	17.170.217	5,3
	2012	948.614	3,1	1.091.440	1,9	1.919.120	3,2	9.486.738	10,1	13.445.912	5,5
	2014	1.402.101	5,7	505.874	0,9	1.233.084	2,0	9.550.546	10,1	12.691.605	5,3
	2016	698.894	2,5	909.132	1,6	1.131.836	1,6	10.052.850	8,0	12.792.712	4,5

.../...

.../...

Kultura-esparrua	Urtea	<5.000 biztanle		5.000-20.000 biztanle		> 20.000 biztanle		Hiriburuak		Udal guztiak	
		€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Arteak eta industriak	2010	13.993.657	38,0	44.153.733	58,8	45.098.706	61,5	87.566.795	63,5	190.812.891	59,1
	2012	13.241.481	44,0	30.907.088	53,5	36.937.117	60,7	59.910.110	64,0	140.995.796	58,2
	2014	11.548.867	46,6	35.580.288	60,5	41.644.057	67,2	61.947.314	65,4	150.720.526	62,7
	2016	13.270.620	46,8	36.000.591	61,6	45.032.548	63,8	84.995.272	67,7	179.299.031	63,4
Antzerkia eta dantza	2010	520.276	1,4	3.491.001	4,6	5.622.888	7,7	19.571.444	14,2	29.205.609	9,0
	2012	824.605	2,7	2.820.379	4,9	3.969.330	6,5	18.040.864	19,3	25.655.178	10,6
	2014	1.391.472	5,6	3.067.769	5,2	6.135.100	9,9	18.099.315	19,1	28.693.655	11,9
	2016	807.165	2,8	3.319.625	5,7	5.934.673	8,4	19.302.506	15,4	29.363.969	10,4
Musika	2010	3.915.603	10,6	13.070.354	17,4	20.916.970	28,5	32.281.722	23,4	70.184.649	21,7
	2012	3.378.412	11,2	13.179.378	22,8	19.546.601	32,1	20.278.104	21,7	56.382.495	23,3
	2014	2.334.356	9,4	13.374.861	22,7	20.805.145	33,6	19.463.451	20,6	55.977.813	23,3
	2016	3.331.667	2,8	13.774.462	23,6	17.631.039	25,0	22.885.518	18,2	57.622.685	20,4
Ikusizko arteak	2010	61.149	0,2	860.643	1,1	1.401.236	1,9	4.223.209	3,1	6.546.237	2,0
	2012	140.583	0,5	724.474	1,3	978.627	1,6	2.303.597	2,5	4.147.281	1,7
	2014	92.424	0,4	735.618	1,3	888.748	1,4	1.484.777	1,6	3.201.566	1,3
	2016	195.591	0,7	1.154.105	2,0	1.028.715	1,5	1.414.726	1,1	3.793.137	1,3
Zinema eta ikus-entzunezkoak	2010	387.898	1,1	3.722.407	5,0	2.367.991	3,2	3.624.623	2,6	10.102.919	3,1
	2012	387.608	1,3	1.958.430	3,4	2.299.979	3,8	3.300.449	3,5	7.946.466	3,3
	2014	203.643	0,8	1.953.657	3,3	1.775.504	2,9	3.297.117	3,5	7.229.921	3,0
	2016	200.807	0,7	1.737.393	3,0	1.181.004	1,7	2.096.569	1,7	5.215.772	1,8
Literatura eta argitalpena	2010	100.216	0,3	266.957	0,4	815.997	1,1	344.734	0,3	1.527.904	0,5
	2012	30.825	0,1	110.399	0,2	15.915	0,0	300.140	0,3	457.279	0,2
	2014	73.702	0,3	216.203	0,4	52.026	0,1	268.466	0,3	610.396	0,3
	2016	34.999	0,1	140.329	0,2	62.239	0,1	25.480	0,0	263.048	0,1

.../...

.../...

Kultura-esparrua	Urtea	<5.000 biztanle		5.000-20.000 biztanle		> 20.000 biztanle		Hiriburuak		Udal guztiak	
		€	%	€	%	€	%	€	%	€	%
Kultura-ekintza	2010	8.957.531	24,3	22.667.830	30,2	13.572.589	18,5	27.405.671	19,9	72.603.621	22,5
	2012	8.375.535	27,8	12.063.566	20,9	10.093.873	16,6	15.563.972	16,6	46.096.947	19,0
	2014	7.369.075	29,7	16.187.331	27,5	11.911.958	19,2	19.284.189	20,4	54.752.553	22,8
	2016	8.595.266	30,3	15.767.413	27,0	19.060.963	27,0	39.203.975	31,2	82.627.617	29,2
Bertsolaritza	2010	50.984	0,1	74.541	0,1	401.035	0,5	115.392	0,1	641.952	0,2
	2012	103.913	0,3	50.462	0,1	32.792	0,1	122.984	0,1	310.151	0,1
	2014	84.195	0,3	44.850	0,1	75.577	0,1	50.000	0,1	254.621	0,1
	2016	105.125	0,4	107.265	0,2	133.915	0,2	66.500	0,1	412.804	0,1
Jaiak eta herri-kultura	2010	8.920.786	24,2	11.059.645	14,7	6.308.651	8,6	11.189.850	8,1	37.478.932	11,6
	2012	7.943.115	26,4	11.094.401	19,2	6.207.323	10,2	8.878.418	9,5	34.123.257	14,1
	2014	6.062.466	24,5	10.053.596	17,1	5.457.034	8,8	8.069.908	8,5	29.643.005	12,3
	2016	7.962.700	28,1	10.708.668	18,3	5.810.222	8,2	8.335.947	6,6	32.817.537	11,6
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2010	3.428.660	9,3	10.371.375	13,8	8.827.097	12,0	5.730.389	4,2	28.357.521	8,8
	2012	2.480.234	8,2	6.609.763	11,4	6.705.030	11,0	3.635.834	3,9	19.430.861	8,0
	2014	1.783.463	7,2	5.991.103	10,2	5.718.940	9,2	4.841.959	5,1	18.335.466	7,6
	2016	1.467.932	5,2	2.703.592	4,6	6.147.439	8,7	8.930.461	7,1	19.249.424	6,8
GUZTIRA	2010	36.833.350	100,0	75.091.340	100,0	73.353.191	100,0	137.808.526	100,0	323.086.407	100,0
	2012	30.127.938	100,0	57.772.046	100,0	60.811.432	100,0	93.648.820	100,0	242.360.236	100,0
	2014	24.787.618	100,0	58.839.162	100,0	61.946.529	100,0	94.689.506	100,0	240.262.815	100,0
	2016	28.370.731	100,0	58.397.960	100,0	70.555.065	100,0	125.557.091	100,0	282.880.847	100,0

5. Administrazio publikoen multzoak kulturan egindako gastua


EAEko kulturako gastu publikoa hiru administrazio-mailen arteko transferentzien beste arazketa bat egin ondoren lortzen da. Beraz, EAEko administrazio publikoek egindako gastu kontsolidatuaren analisi finduena da, administrazio horien forma juridikoa edo kudeaketa-eredua edozein dela.

Atal honetan, prozesuaren emaitza ikuspegi bikoitzetik aurkezten da: partidak entitate finantzazaleetan edukizetik lortzen dena, hau da, jatorrian kontsolidatutako gastua deritzona, eta partidak entitate hartzaileetan edukizetik lortzen dena, hau da, helmugan kontsolidatutako gastua. Beste modu batean esanda, emaitza horiek dira EAEko administrazio publiko guztiek 2016an egin zuten gastuaren eta 2010, 2012 eta 2014arekiko bilakaeraren aurkia eta ifrentzua. Bi ikuspegiak funtsezko datuak ematen dizkigute interpretazio osagarria egiteko: batetik, kulturako gastu publikoa finantzatzen duten iturrien profila, eta, bestetik, gastu horren azken emaitzaren ezaugarriak. Laburbilduz, kulturako aurrekontu publikoak nondik datozen, zertara bideratzen diren eta nola xahutzen diren

5.1. Administrazio-mailen arteko transferentzien fluxuak

Administrazio-mailen arteko transferentziak, gehien bat, udalez gaindiko administrazioetatik (Eusko Jurlaritzak eta foru-aldundiak) etortzen dira udaletara eta berorien mendeko entitateetara; eta, neurri apalagoan, Eusko Jurlaritzatik eta udaletatik foru-aldundien mendeko sozietate publiko eta fundazioetara. 2016an administrazio-maila desberdinen artean izandako transferentzien guztizko bolumena ondoren aurkezten den eskeman dago erregistratuta.

38. irudia. EAEko administrazioen arteko transferentziak. 2016, eta 2014 urtearekiko aldaketa



Eskeman ikus daiteke Eusko Jaurlaritzak 10,6 milioi euro transferitu dituela beste administrazio-maila batzuetara 2016an.

- 5,1 milioi euro udalei.
- 5,0 milioi euro udalen mendeko sozietate publiko eta fundazioei.
- 642 mila euro foru-aldundien mendeko sozietate publiko eta fundazioei.

Datu horiek 2014koekin alderatzen badira, ikusiko da Eusko Jaurlaritzak egindako transferentziak % 9,4 hazi direla, eta hori 2014an hautematen zenaren kontrako joera da. Handitze hori foru-aldundien (+% 70,5) eta udalen (+% 16,9) mendekoak diren –edo haiek partaide dituzten– sozietate publikoek eta fundazioek jasotako transferentzietan ikus dezakegu islatuta.


Foru-aldundiek 3,9 milioi euro transferitu dituzte, guztira, beste administrazio batzuetara, hau da, 2014an baino % 6,8 gehiago. Eta udalek 283,8 mila euro, 2014an baino % 89,5 gutxiago, beraz.

5.2. Jatorrian kontsolidatutako gastua

Jatorriko datuak kontsolidatzeko unean, transferentziak entitate finantzatzailearekin lotuta egoten jarraitzen du, eta horri esker jakin daiteke administrazio-maila bakoitzak EAEko gastu garbian izan duen garrantzia. Hala, EAEren kulturako gastu kontsolidatuak 428,9 milioi euro jo du 2016an:

- Eusko Jaurlaritzak % 17,1 finantzatu du, 73,3 milioi euroko gastua (2014an baino % 13,3 gutxiago, orduan gastua 84,5 milioi euro izan baitzen; eta 2010ean baino % 8,2 gutxiago).
- Hiru aldundiak gastuaren % 20,2ra iritsi dira, 86,7 milioi euro guztira (% 6,4 gehiago 2014an baino, urte hartan 81,6 milioi euroko guztizko gastua erregistratu baitzen; 2010arekiko alderantzizko joerarekin, 2016an % 9,3 gutxiagoko gastua erregistratu da foru-aldundietan).
- Udalek metatu dute kulturaren egindako gastu-bolumen handiena, % 62,7, hau da, 268,8 milioi euro guztira (2014an 227,2 milioi euro gastatu ziren, alegia, 2016an % 18,3 igo da gastua; hala eta guztiz ere, serie historikoak % 11,4ko jaitsiera erregistratu du 2010etik).

39. irudia. **Kulturako gastuaren bilakaera EAEn (Oinarrizko indizea 100 = 2010). 2010-2016**



Kontuan eduki behar da, era berean, udalek jaso dituzten transferentziak, 2014tik 2016ra, 13,0 milioi eurotik 14,0 milioi euroraino hazi direla; aitzitik, foru-aldundietan, jasotako transferentziak 3,1 milioi eurotik 732,3 mila eurora murriztu dira.


40. irudia. **Gobernu-maila bakoitzaren garrantzi erlatiboa EAEko kulturako gastuan (euroak eta %). 2010-2016**

Administrazio-mailak	Urtea	Kulturako gastua		Transferentzia bidezko diru-sarrerak		Gastu kontsolidatua kulturari	
		€	%	€	%	€	%
Eusko Jaurlaritza	2010	79.881.983	16,0	-	-	79.881.983	16,7
	2012	77.084.061	18,9	-	-	77.084.061	19,8
	2014	84.618.487	20,6	-	-	84.618.487	21,5
	2016	73.386.970	16,5	43.394	0,3	73.343.576	17,1
Foru-aldundiak	2010	96.443.585	19,3	665.003	3,3	95.778.582	20,0
	2012	87.787.989	21,6	438.356	2,4	87.349.633	22,4
	2014	84.717.596	20,7	3.086.794	19,2	81.630.802	20,7
	2016	87.555.713	19,7	732.265	4,9	86.823.448	20,2
Udalak	2010	323.086.407	64,7	19.646.232	96,7	303.440.175	63,3
	2012	242.360.236	59,5	17.505.856	97,6	224.854.380	57,8
	2014	240.262.815	58,7	13.014.081	80,8	227.248.735	57,8
	2016	282.880.847	63,7	14.071.264	94,8	268.809.583	62,7
EAE, guztira	2010	499.411.975	100,0	20.311.235	100,0	479.100.740	100,0
	2012	407.232.286	100,0	17.944.212	100,0	389.288.074	100,0
	2014	409.598.898	100,0	16.100.875	100,0	393.498.024	100,0
	2016	443.823.530	100,0	14.846.923	100,0	428.976.607	100,0

EAE mailan gastu kontsolidatuak 2016an izandako banaketari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu 10 eurotik ia 9 (% 88,1) gastu arruntari dagozkiola. Proportzio hori zertxobait handiagoa da udalen kasuan (% 91,3), eta apur bat txikiagoa foru-aldundietan (% 84,0) eta Eusko Jaurlaritzan (% 81,4).

Kapital-gastuen proportzioari bagazozkio, Eusko Jaurlaritzarena (% 14,1) eta foru-aldundiena (% 12,1) apur bat handiagoa da batez besteko orokorra baino (% 9,6). 2010arekin alderatuta, jaitsi egin da bi administrazioetan gastu horien garrantzia (2010ean % 25,3 zen, jaurlaritzaren kasuan, eta % 31,9 foru-aldundienean).

41. irudia. EAEko administrazio publikoek kulturaren egindako gastuaren banaketa, gastu motaren eta administrazio-mailaren arabera (%). 2010-2016



Kulturan egindako gastu kontsolidatu osoaren banaketa aztertzen badugu EAEko administrazio publikoen kapitulu ekonomikoen arabera, oharuko gara ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak, II. kapitulua, guztizkoaren % 37,2 direla (159,4 milioi euro) eta langile-gastuak, berriz, I. kapitulua, % 33,0 (141,5 milioi euro). Hala, kulturan egindako gastu kontsolidatu osoaren % 70,2 bi kapitulu horietara bideratzen da, ehuneko hori apur bat apalagoa bada ere 2014koa baino, orduan % 72,2 baitzen. Inbertsio garrantzitsua biltzen duen hurrengo kapitulua transferentzia arruntei dagokiena da, % 17,9ko pisuarekin (76,7 milioi euro).

EAEko datuak alderatzen badira administrazio-mailen arabera, ikusiko da gastu arrunten % 64,9 udalei dagozkienak direla. Kapital-gastuetan ere nagusitzen da udalen pisu erlatiboa, % 49,6 metatzen baitute. Finantza-aktiboei eta -pasiboei dagokienez, gastua banatuagoa dagoela ikus daiteke: foru-aldundiei dagokie gastuaren % 35,0, Eusko Jaurlaritzari % 34,1, eta udalei gastuaren % 31,0.

42. irudia. EAEko administrazio publikoek kulturaren egindako gastuaren banaketa, kapitulu ekonomikoaren eta administrazio-mailen arabera (euroak eta % horizontala). 2010-2016

Kapitulu ekonomikoa	Urtea	Eusko Jaurlaritzza		Foru-aldundiak		Udalak		GUZTIRA	
		€	%	€	%	€	%	€	%
Gastu arruntak	2010	55.840.285	15,7	62.626.122	17,6	237.098.159	66,7	355.564.566	100,0
	2012	57.335.603	17,1	63.604.917	18,9	214.945.056	64,0	335.885.576	100,0
	2014	69.917.139	20,0	65.569.014	18,8	213.272.749	61,2	348.758.902	100,0
	2016	59.686.035	15,8	72.948.496	19,3	245.351.968	64,9	377.986.499	100,0
I. kap. Langile-gastuak	2010	12.323.046	9,7	24.940.348	19,6	89.978.134	70,7	127.241.528	100,0
	2012	12.582.350	10,1	23.892.060	19,2	88.204.635	70,7	124.679.045	100,0
	2014	13.028.437	10,0	27.074.839	20,8	90.219.717	69,2	130.322.993	100,0
	2016	14.308.706	10,1	26.690.468	18,9	100.480.385	71,0	141.479.559	100,0
II. kap. Ondasun eta zerbitzueta gastu arruntak	2010	12.505.497	8,5	21.393.166	14,5	113.358.821	77,0	147.257.484	100,0
	2012	15.022.004	10,5	24.213.881	16,9	103.962.166	72,6	143.198.051	100,0
	2014	32.441.829	21,1	21.897.161	14,2	99.451.296	64,7	153.790.286	100,0
	2016	15.055.827	9,4	26.121.788	16,4	118.212.634	74,2	159.390.249	100,0
III. kap. Finantza-gastuak	2010	64.677	12,8	70.310	14,0	368.928	73,2	503.915	100,0
	2012	78.855	13,3	112.927	19,1	399.705	67,6	591.487	100,0
	2014	123.807	12,7	553.422	56,8	296.814	30,5	974.043	100,0
	2016	31.249	7,7	33.279	8,2	340.507	84,1	405.035	100,0
IV. kap. Transferentzia arruntak	2010	30.947.065	38,4	16.222.298	20,1	33.392.276	41,4	80.561.639	100,0
	2012	29.652.394	44,0	15.386.049	22,8	22.378.550	33,2	67.416.993	100,0
	2014	24.323.066	38,2	16.043.592	25,2	23.304.922	36,6	63.671.580	100,0
	2016	30.290.253	39,5	20.102.961	26,2	26.318.442	34,3	76.711.656	100,0
Kapital-gastuak	2010	20.210.732	17,3	30.508.016	26,1	66.212.344	56,6	116.931.092	100,0
	2012	18.908.807	36,8	22.732.540	44,2	9.773.487	19,0	51.414.834	100,0
	2014	14.666.761	33,9	15.060.313	34,8	13.504.855	31,2	43.231.928	100,0
	2016	10.337.245	25,1	10.467.022	25,4	20.438.363	49,6	41.242.630	100,0
VI. kap. Inbertsio errealek	2010	6.526.338	8,5	17.995.785	23,5	51.980.718	67,9	76.502.841	100,0
	2012	10.829.660	27,2	19.358.326	48,7	9.572.302	24,1	39.760.288	100,0
	2014	9.023.024	27,8	10.050.815	30,9	13.434.700	41,3	32.508.538	100,0
	2016	5.836.390	17,9	7.333.962	22,5	19.492.212	59,7	32.662.564	100,0

.../...

.../...

Kapitulu ekonomikoa	Urtea	Eusko Jaurlaritza		Foru-aldundiak		Udalak		GUZTIRA	
		€	%	€	%	€	%	€	%
VII. kap. Kapital- transferentziak	2010	13.684.394	33,8	12.512.231	30,9	14.231.626	35,2	40.428.251	100,0
	2012	8.079.147	69,3	3.374.214	29,0	201.185	1,7	11.654.546	100,0
	2014	5.643.737	52,6	5.009.498	46,7	70.155	0,7	10.723.390	100,0
	2016	4.500.855	52,5	3.133.060	36,5	946.151	11,0	8.580.066	100,0
Finantza-aktibo eta -pasiboak	2010	3.830.966	58,0	2.644.444	40,0	129.672	2,0	6.605.082	100,0
	2012	839.651	42,2	1.012.176	50,9	135.837	6,8	1.987.664	100,0
	2014	34.588	2,3	1.001.475	66,4	471.131	31,3	1.507.194	100,0
	2016	3.320.296	34,1	3.407.929	35,0	3.019.252	31,0	9.747.477	100,0
VIII. kap. Finantza-aktiboak	2010	3.830.966	58,6	2.644.444	40,4	65.563	1,0	6.540.973	100,0
	2012	810.758	44,3	962.179	52,5	58.366	3,2	1.831.303	100,0
	2014	2.150	0,2	969.037	74,8	324.190	25,0	1.295.378	100,0
	2016	0	0,0	0	0,0	36.291	100,0	36.291	100,0
IX. kap. Finantza-pasiboak	2010	-	-	-	-	64.109	100,0	64.109	100,0
	2012	28.893	18,5	49.997	32,0	77.471	49,5	156.361	100,0
	2014	32.438	15,3	32.438	15,3	146.941	69,4	211.816	100,0
	2016	3.320.296	34,2	3.407.929	35,1	2.982.961	30,7	9.711.187	100,0
GUZTIRA	2010	79.881.983	16,7	95.778.582	20,0	303.440.175	63,3	479.100.740	100,0
	2012	77.084.061	19,8	87.349.633	22,4	224.854.380	57,8	389.288.074	100,0
	2014	84.618.487	21,5	81.630.802	20,7	227.248.735	57,8	393.498.024	100,0
	2016	73.343.576	17,1	86.823.447	20,2	268.809.583	62,7	428.976.607	100,0

Oharra: Kontsolidazio-prozesua egiteko unean, entitate finantzazailen aurrekontu-partidak mantendu dira.

5.3. Helmugan kontsolidatutako gastua


EAE osoan kulturaren egindako gastu kontsolidatuaren emaitzak aurkeztu ditugu atal honetan, betiere gastu hori egin duen entitatean mantenduz, eta hortaz, transferentziak eta diru-laguntzak jatorrian ezabatuz. Era horretan egindako kontsolidazio-prozesuak kulturako gastuaren azken erabilera erakusten du, bai eta horren banaketa ekonomikoari buruzko xehetasun-maila handiagoa ere.

Gastu kontsolidatua, kultura-esparruaren arabera

Aurreko edizioetan bezala, kulturaren egindako gastu publikoaren erdia baino gehiago (% 58,4) arte eta kultura industriaren sektoreara bideratu da (250,4 milioi euro). Ondarearen sektorea dator, arte eta industriaren ondoren, gastuaren % 25,9rekin, 111,2 milioi euro, alegia. Jaiak eta herri-kultura sektoreko gastua % 8,0koa izan da (34,4 milioi euro) eta zuzendaritza eta zerbitzu orokorreari dagokiena, berriz, % 7,7koa (32,9 milioi euro).

2010etik hona izan diren gastuak alderatzen badira, ikusiko dugu, orain arte, sektore guztietan murriztu izan dela gastua, baina badirudi 2016an kontrako dinamikari ematen zaiola hasiera, ondare-arloko gastuaren kasua salbuetsita (-% 7,6). Horrela, 2014tik 2016ra, hazkunde handiena erregistratu duten sektoreak izan dira zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako (+% 34,0) eta arte eta industrietako gastuak (+% 15,3). Konparatiboa 2010etik hona egiten bada, joerak aldatu egiten dira; izan ere, sektore guztiek egiten dute behera aurrekontuari dagokionez, arte eta industriaren sektorea salbuetsita, % 1,3 igo baita. 2010etik erregistratu den jaitsiera handiena ondareari dagokio, non % 30,1 gutxiagoko gastua egin den (2010eko 159,0 milioi eurotik 2016ko 111,2 milioi eurora igaro da), gero dator jaien eta herri-kulturaren sektorea, zeinaren aurrekontua % 12,4 murriztu den.

43. irudia. EAEko herri-administrazioek kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (%). 2010-2016



Aldaketa	Ondarea	Arteak eta industriak	Jaiak eta herri-kultura	Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	EAE, guztira
2010-2016	▼% 30,1	▲% 1,3	▼% 12,4	▼% 2,4	▼% 10,5
2014-2016	▼% 7,6	▲% 15,3	▲% 8,8	▲% 34,0	▲% 9,0

Xehekiago aztertuta, kultura-ekintza eta musikako azpisektoreak dira gastu-bolumen handiena xurgatzen dutenak. Kultura-ekintzara, 2016an, guztizko gastuaren % 25,5 bideratu da (109,5 milioi euro) eta % 18,8 musikara (80,6 milioi euro). Aurreko edizioari dagokionez, azpimarratzekoa da kultura-ekintzako gastuak hazkunde nabarmena izan duela, % 39,4 igo baita 2014tik (eta % 32,6, berriz, 2010arekiko).

Gainerako azpisektoreei dagokienez, aipatzekoa da bakoitzak gastuaren % 7 eta % 10 artean metatzen duen multzo bat: museoak (% 10,6), liburutegiak (% 8,4), zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak (% 8,0), antzerkia eta dantza (% 7,8) eta jaiak eta herri-kultura (% 7,7).

Gainerako azpisektoreek % 5etik beherako pisu erlatiboa dute: ondarea eta arkeologia (% 4,8), zinema

eta ikus-entzunezkoak (% 3,9), artxiboak (% 2,1), ikusizko arteak (% 1,6), literatura eta argitalpena (% 0,5) eta bertsolaritza (% 0,3).


Nahiz eta, proportzioan, aldaketa gutxi nabarmentzen diren gastu txikiagoa metatzen duten azpisektore horien artean, 2010etik honako datuak aztertzen badira murrizketa garrantzitsuak hautematen dira azpisektore batzuen aurrekontuan:

- Ondarea eta arkeologia % 57,7 jaitsi da 2010etik 2016ra, 49,0 milioi euroko aurrekontua izatetik 20,7 milioiko aurrekontua izatera pasatu baita.
- Ikusizko arteak % 38,8 jaitsi dira, 11,2 milioi euroko gastua izatetik 6,8 milioikora pasatu baitira.
- Literatura eta argitalpena % 37,0 gutxitu da, milioi 1 euro baino gehiago murriztu baitzaio aurrekontua; gastua 3,5 milioitik 2,2 milioira igaro da.
- Artxiboetako gastua % 35,7 murriztu da; 2010ean 14,0 milioi euroko aurrekontua zuen eta 2016an 9,0 milioi eurokoa.
- Zinema eta ikus-entzunezkoaren aurrekontua ere % 23,9 jaitsi da 2010ekoarekin alderatuta, hau da, 5,3 milioi euro gutxiagoko gastua (22,1 milioi eurotik 16,8 milioira).


Aitzitik, gastu gutxien metatu duen sektorea bertsolaritza bada ere, bere aurrekontua hazten ari da 2010etik. Bertsolaritzan egin den gastua % 20,2 hazi da 2010etik 2016ra, eta horrek esan nahi du 1,1 milioi euroko aurrekontua duela, eta esan behar da azpisektore kultural horren aurrekontua ez zela orain arte milioi eurotik igaro.

Kulturaren biztanle bakoitzeko egindako gastua 197,5 euro izan da (16,4 euro gehiago biztanleko 2014an baino). Gastua zer sektoretan egin den kontuan hartuta aztertzen bada, alde garrantzitsuak agertzen dira. Kultura-ekintzak 50,4 euroko gastua sortzen du biztanleko, eta musikak 42,7 eurokoa. Aipatzekoak dira, neurri txikiagoan bada ere, museoetako gastua, 20,9 euro biztanleko; liburutegiak, 16,5 euro biztanleko; zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak, 15,9 euro biztanleko; antzerkia eta dantza, eta jaiak eta herri-kultura, 15,4 eta 15,2 euro biztanleko, hurrenez hurren. Kulturako azpisektore horiek guztiek hazkundea izan dute, handiagoa edo txikiagoa kasu bakoitzaren arabera, biztanle bakoitzari dagokion gastuan.

44. irudia. EAEko herri-administrazioek kulturaren egindako gastua, kultura-esparruaren arabera (euroak eta %). 2010-2016



45. irudia. **Kulturaren biztanle bakoitzeko egindako gastuaren ratioa, kultura-esparruaren arabera (€/biztanleko). 2010-2016**



Gastu kontsolidatuaren izaera ekonomikoa

Helmugan kontsolidatutako kulturako gastu osoaren izaera ekonomikoaren analitik ondorioztatzen da gastuaren % 88,2 gastu arruntetara bideratu dela, 10 eurotik 8,8 (378,5 milioi euro); horien artean azpimarratzekoak dira ondasun eta zerbitzuetako gastuak (161,1 milioi euro) eta langile gastuak (146,8 milioi euro). Kapital-gastuak 40,6 milioi euro izan dira (% 9,5).

2014arekin alderatua, hauek ikusten dira:

- I. kapitulua, langile-gastuei dagokiena, 11 milioi euro hazi da. Hazkunde hori ulertzeko, kontuan hartu behar da kultura-ekintzan (10 milioi euro gehiago) eta ondare eta arkeologian (6,1 milioi euro gehiago) lan egiten duten pertsonen gastuen igoera.
- II. kapitulua –ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunta– 5,7 milioi euro igo da 2014arekiko. Hazkunde horren arrazoia kultura-ekintzan egindako gastuaren igoera da (ia 22 milioi euro gehiagoko aurrekontua dela medio). Kontrara, behera egin du ondare eta arkeologiako gastuak (ia 18 milioi euro gutxiago).
- IV. kapitulua ere –transferentzia arruntak– hazi egin da: 12,4 milioi euro gehiago gastatu dira (% 23,1 gehiago). Igoera hori kultura-ekintzan (4,2 milioi gehiago), zineman eta ikus-entzunezkoetan (+2,8 milioi euro) eta museoetan (+2,4 milioi euro) izandako hazkundeari zor zaio.
- VI. kapitulua –inbertsio errealek– berdintsu mantentzen da (35 milioi euroren inguruan).

2010arekin alderatuta, hona alde nabarmenenak:

- IX. kapituluak –finantza-pasiboak– 9,6 milioi euroko hazkundea izan du eta 118,9 mila eurotik 9,7 milioi eurora igaro da.
- VIII. kapituluak –finantza-aktiboak– % 99,2ko jaitiera izan du, 6,5 milioi euroko gastua izatetik 51,3 milakoa izatera pasatu baita.
- VII. kapitulua –kapital-transferentziak– 28,7 milioi euro murriztu da (horrek esan nahi du % 83,7 gutxiago gastatu duela) eta 34,3 milioi euroko aurrekontua izatetik 5,6 milioikora igaro da.
- Aipatzekoa da inbertsio errealek –VI. kapitulua– jasandako murrizketa ere, erdia baino gutxiagora jaitsi baita (–% 56,2), 45,1 milioi euro gutxiago 2016an 2010ean baino.
- Azkenik, 2010etik hona hazi diren kapitulu bakarrak langile-gastua (I. kapitulua) eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak (II. kapitulua) izan dira, % 10,1 eta % 6,7, hurrenez hurren.

46. irudia. EAEko kulturako gastu konsolidatua, kultura-esparruaren eta kapitulu ekonomikoaren arabera (% horizontala). 2010-2016

Kultura-esparrua	Urtea	Gastu arruntak %				Kapital-gastuak %		Finantza-aktibo eta -pasiboak %		Guztira %
		I. kap. Langile-gastuak	II. kap. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	III. kap. Finantza-gastuak	IV. kap. Transferentzia arruntak	VI. kap. Inbertsio errealak	VII. kap. Kapital-transferentziak	VIII. kap. Finantza-aktiboak	IX. kap. Finantza-pasiboak	
Ondarea	2010	24,7	20,1	0,1	11,6	26,1	14,2	3,3	0,0	100,0
	2012	35,7	33,3	0,2	11,8	15,2	2,8	0,9	0,1	100,0
	2014	33,9	42,8	0,2	12,3	6,5	3,2	1,1	0,1	100,0
	2016	42,2	29,4	0,1	15,8	10,5	2,0	0,0	0,0	100,0
Ondarea eta arkeologia	2010	10,9	10,9	0,0	13,6	32,3	32,3	0,0	0,0	100,0
	2012	22,6	19,6	0,3	5,3	37,7	14,5	0,0	0,0	100,0
	2014	10,3	64,3	0,0	4,7	7,6	9,5	3,5	0,0	100,0
	2016	44,1	17,2	0,0	9,1	19,4	10,2	0,0	0,0	100,0
Liburutegiak	2010	50,5	27,3	0,0	0,2	21,8	0,2	0,0	0,0	100,0
	2012	54,8	36,1	0,0	0,2	9,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	2014	60,1	31,7	0,0	0,3	7,8	0,1	0,0	0,0	100,0
	2016	58,6	29,5	0,0	0,2	11,7	0,0	0,0	0,0	100,0
Artxiboak	2010	28,4	12,0	0,0	6,2	53,3	0,1	0,0	0,0	100,0
	2012	43,3	21,0	0,0	8,1	27,6	0,0	0,0	0,0	100,0
	2014	58,3	25,4	0,6	7,5	8,1	0,0	0,0	0,0	100,0
	2016	54,2	28,8	0,0	8,5	8,4	0,2	0,0	0,0	100,0
Museoak	2010	18,2	25,0	0,2	18,8	17,0	11,5	9,2	0,0	100,0
	2012	23,7	40,4	0,3	24,8	7,3	1,2	2,2	0,2	100,0
	2014	25,2	39,2	0,3	29,1	4,2	1,5	0,3	0,2	100,0
	2016	26,0	35,0	0,2	32,7	6,0	0,2	0,0	0,0	100,0
Arteak eta industriak	2010	28,5	34,9	0,1	17,0	14,3	4,7	0,5	0,0	100,0
	2012	32,9	35,9	0,1	16,7	12,4	1,5	0,4	0,0	100,0
	2014	34,1	37,3	0,1	15,3	12,0	1,1	0,1	0,1	100,0
	2016	33,3	40,8	0,0	16,8	7,7	1,3	0,0	0,0	100,0
Antzerkia eta dantza	2010	20,8	47,6	0,2	12,9	8,4	10,1	0,0	0,0	100,0
	2012	24,2	48,5	0,2	24,9	2,1	0,0	0,0	0,0	100,0
	2014	23,4	44,4	0,1	21,6	10,7	0,0	0,0	0,0	100,0
	2016	25,7	47,3	0,1	22,7	4,2	0,0	0,0	0,0	100,0
Musika	2010	52,6	18,2	0,0	16,0	9,9	3,2	0,1	0,0	100,0
	2012	52,3	24,8	0,0	10,8	12,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	2014	62,6	23,1	0,0	12,4	1,7	0,0	0,2	0,0	100,0
	2016	60,5	24,2	0,0	13,3	1,9	0,0	0,0	0,0	100,0

.../...

.../...


Kultura-esparrua	Urtea	Gastu arruntak %				Kapital-gastuak %		Finantza-aktibo eta -pasiboak %		Guztira %
		I. kap. Langile-gastuak	II. kap. Ondasun eta zerbitzu-etako gastu arruntak	III. kap. Finantza-gastuak	IV. kap. Transferentzia arruntak	VI. kap. Inbertsio errealak	VII. kap. Kapital-transferentziak	VIII. kap. Finantza-aktiboak	IX. kap. Finantza-pasiboak	
Ikusizko arteak	2010	18,2	53,9	0,0	20,9	5,1	1,8	0,0	0,0	100,0
	2012	19,5	46,7	0,0	28,6	3,2	2,0	0,0	0,0	100,0
	2014	25,4	38,7	0,0	22,1	9,8	3,9	0,1	0,0	100,0
	2016	21,3	50,1	0,0	22,2	1,2	5,2	0,0	0,0	100,0
Zinema eta ikus-entzunezkoak	2010	10,8	42,8	0,5	16,0	12,9	11,7	5,3	0,0	100,0
	2012	11,9	41,4	0,3	11,8	23,0	7,9	3,7	0,0	100,0
	2014	13,8	43,6	0,4	12,9	20,4	8,9	0,0	0,0	100,0
	2016	6,6	20,9	0,0	31,2	29,9	11,4	0,0	0,0	100,0
Literatura eta argitalpena	2010	12,6	33,4	0,0	50,1	2,3	1,6	0,0	0,0	100,0
	2012	10,1	21,6	0,0	68,0	0,4	0,0	0,0	0,0	100,0
	2014	15,6	18,0	0,0	62,3	3,6	0,5	0,0	0,0	100,0
	2016	10,7	14,4	0,0	72,9	2,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Kultura-ekintza	2010	11,6	43,6	0,0	17,9	23,9	2,7	0,0	0,1	100,0
	2012	18,2	44,2	0,0	18,9	16,4	2,1	0,0	0,2	100,0
	2014	16,8	47,7	0,2	13,5	21,3	0,4	0,0	0,2	100,0
	2016	21,2	54,2	0,0	13,5	10,3	0,8	0,0	0,0	100,0
Bertsolaritza	2010	9,5	42,1	0,0	37,4	0,0	11,1	0,0	0,0	100,0
	2012	3,9	35,2	0,0	60,8	0,1	0,0	0,0	0,0	100,0
	2014	6,9	14,0	0,0	64,0	0,0	15,2	0,0	0,0	100,0
	2016	3,7	21,4	0,0	61,0	1,4	12,5	0,0	0,0	100,0
Jaiak eta herri-kultura	2010	5,7	69,9	0,0	23,0	1,1	0,2	0,0	0,0	100,0
	2012	5,8	75,3	0,0	18,7	0,2	0,0	0,0	0,0	100,0
	2014	5,8	74,9	0,0	18,5	0,2	0,6	0,0	0,0	100,0
	2016	5,6	75,3	0,0	18,4	0,6	0,0	0,0	0,0	100,0
Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2010	61,2	29,4	0,8	0,4	8,3	0,0	0,0	0,0	100,0
	2012	63,8	32,1	1,0	0,6	2,5	0,0	0,0	0,0	100,0
	2014	75,0	16,6	2,3	0,0	5,8	0,3	0,0	0,0	100,0
	2016	42,4	16,2	1,0	0,8	11,2	0,1	0,0	28,3	100,0
GUZTIRA	2010	27,8	32,3	0,1	14,4	16,7	7,2	1,4	0,0	100,0
	2012	33,4	38,4	0,2	14,4	11,5	1,6	0,5	0,0	100,0
	2014	34,5	40,5	0,3	13,6	9,0	1,6	0,4	0,1	100,0
	2016	34,2	38,5	0,1	15,4	8,2	1,3	0,0	2,3	100,0

6. Kultura-arloko enplegu publikoa

Datu ekonomikoez gainera, estatistikak administrazio publikoaren kultura-enpleguari buruzko informazioa eskaintzen du.

EAEko administrazio publikoak kulturari lotutako 2.879,6 lanpostu ditu, 2010ean baino % 5,7 gehiago (garai hartan urtean urteko 2.725,0 lanpostu erregistratu ziren).

47. irudia. **Kultura-arloko enplegu publikoa (urtean urteko lanpostuak). 2010-2016**




Aurreko edizioetan ikusi izan den bezala, enplegu publiko propioaren zatirik handiena erakunde autonomo, fundazio eta sozietate publikoei (1.433,1 lanpostu 2016an) eta udalei (1.063,1 lanpostu) atxikita dago, horrek esan nahi du kulturako enplegu publiko propio guztiaren % 86,7 dela (% 49,8 eta % 36,9, hurrenez hurren). Foru-aldundiek % 10,3 (298,0 lanpostu) enplegatzen dute, eta Eusko Jaurlaritzak gainerako % 3,0 (85,3). Kulturako enplegu propio guztiaren % 90,3 kultura-kudeaketa eta -jarduerako langileei dagokie (2.600,7) eta % 9,7, laguntzarako langileei (278,8).

Enplegu publiko propioak erakunde motaren arabera izandako bilakaeran, Eusko Jaurlaritzako (+% 20,1) eta erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioetako (+% 15,8) enplegu hazkundeak

nabarmentzen dira. Aitzitik, foru-aldundietan eta udaletan, enpleguaren beherakada gertatu da, % 10,0 eta % 2,0 gutxiago, hurrenez hurren. Datuei xehekiago erreparatuta, Eusko Jaurlaritzako hazkundearen arrazoia kultura-kudeaketa eta -jarduerako langile gehiago kontratatu izana da; foru-aldundietan, ordea, gutxitu egin dira mota horretako langileak; udaletako eta erakunde autonomoetako datuak ulertzeko, laguntzarako langileen hazkunde garrantzitsua hartu behar da kontuan.

48. irudia. **Kultura-arloko enplegu propioa (I. kapituluari dagokiona), erakunde motaren arabera (urtean urteko lanpostuak). 2008-2016**



49. irudia. **Kultura-arloko enplegu propioa (I. kapituluari dagokiona), erakunde motaren eta lanbide-eginkizunaren arabera (urtean urteko lanpostuak). 2010-2016**

Erakunde mota	Urtea	Kultura-kudeaketarekin eta -jarduerarekin lotutako langileak	Laguntzarako langileak	Guztira
Eusko Jaurlaritza	2010	71,0	0	71,0
	2012	85,4	0	85,4
	2014	84,3	0	84,3
	2016	85,3	0	85,3
Foru-aldundiak	2010	331,0	0	331,0
	2012	263,3	21,3	284,6
	2014	268,6	22,0	290,6
	2016	269,0	29,0	298,0
Udalak	2010	973,0	112,0	1.085,0
	2012	945,9	125,5	1.071,4
	2014	963,4	134,3	1.097,7
	2016	878,9	184,2	1.063,1
Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	2010	1.213,0	25,0	1.238,0
	2012	1.262,2	54,1	1.316,3
	2014	1.288,0	73,5	1.361,5
	2016	1.367,6	65,6	1.433,1
EAE, guztira	2010	2.588,0	137,0	2.725,0
	2012	2.556,8	200,8	2.757,7
	2014	2.604,2	229,8	2.834,1
	2016	2.600,7	278,8	2.879,6

Analisiari genero-ikuspegia gehitzen badiogu, aipatzekoa da enplegu publiko propioko lanpostuen erdiak baino gehiago emakumeek okupatzen dituztela. Aurrez iruzkindu dugun bezala, langile gehien dituzten bi administrazio-mailak dira, batetik, erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak eta, bestetik, udalak; eta udalei dagokienez, % 62,3ko pisua dute emakumezkoek okupatutako lanpostuek. Erakunde autonomoetan –beroriek dira lanpostu gehien sortzen dituztenak–, emakume langileen portzentajea % 52,9 da (esan behar da bertan dutela ehuneko txikiena beste administrazioekin alderatuta; Eusko Jaurlaritzan % 53,6koa da emakumeen okupazioa, eta foru-aldundietan, berriz, % 53,5ekoa.

50. irudia. **Kultura-enplegu publiko propioa (I. kapitulari dagokiona) entitate motaren eta sexuaren arabera. 2016**

Erakundea	Absolutuak		%	
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Eusko Jaurlaritz	45,7	39,6	53,6	46,4
Foru-aldundiak	159,5	138,5	53,5	46,5
Udalak	662,2	401,0	62,3	37,7
Erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak	757,9	675,3	52,9	47,1

7. Laburpen gisa


■ Joera-aldaketa bat ikusten da

EAEko administrazio publikoek kulturaren egindako gastuaren bilakaerak joera-aldaketa bat erakusten du. Kulturako aurrekontuak modu esanguratsuan hazi dira lehenengo aldiz azterlanaren serie historikoa hasi zenetik. Horrela, 2016an likidatutako gastua 576,9 milioi euro izan da. Zifra horri kontsolidazio-prozesua aplikatu eta araztu ondoren, 428,9 milioi eurotan geratzen zaigu.

Azterlanaren lehen edizioa 2008an kokatzen da, urte horretan hasi baitzen azken hamarraldi osoan luzatu den krisi ekonomikoa, eta urte horrek markatzen baitu serie guztiaren gastu-sabaia. Nahiz eta oraindik ez den berreskuratu ekitaldi hartan kulturaren egindako gastu-maila, aipatzekoa da kulturara bideratutako aurrekontu publikoen gorakada nabarmena 2012koetik, urte hartan erregistratu baitzen serie historikoan kulturaren egindako gasturik apalena, ez zen alferrik % 24 erori kulturako gastu kontsolidatua 2008ko zifrekiko (510,1 milioi eurotik 389,2 milioi eurora).

Emaitzek erakusten dute eman zaiola hasiera kulturara bideratutako aurrekontu publikoen goranzko joerari. Azterlanaren etorkizuneko edizioetan egiaztatu ahal izango da joera hori berresten den eta krisi aurreko gastu-mailak berreskuratzen diren edo ez.

52. irudia. Kulturako gastu likidatua eta gastu kontsolidatua (euroak). 2008-2016



■ Ahalegin kulturala, jarduteko ahalmenaren eta kulturarekiko konpromisoaren isla

Ahalegin kulturala adierazle giltzarria dugu. Berak erlazionatzen ditu administrazioen aurrekontu-erabilgarritasun globala, haietako bakoitzak kulturari jarduteko dituen aukerak –esparru ez-kulturaletan dituzten obligazioek udalez gairako erakundeen aurrekontuak hipotekatu ditzaketen neurrian– eta kulturari esku hartzeko administrazio horiek duten borondatea, esparru horretan dituzten eskumenetatik harago, udalen kasuan bezala.

Hala, 2016an, kulturako gastu likidatuaren pisu erlatiboa, guztizko aurrekontuekin alderatuta, % 8,6 izan zen udaletan, % 2,8 foru-aldundietan, eta % 0,7 Eusko Jaurlaritzan.


2008tik, Eusko Jaurlaritzaren zifrak positiboan mantentzen dira: handitu egin dira guztizko aurrekontua eta kulturako aurrekontua, nahiz eta kulturako aurrekontuaren hazkundera txikiagoa den guztizko aurrekontuan izandakoa baino (% 2,2ko hazkundera kulturaren kasuan, eta % 11,2koa guztizko aurrekontuarenean).

Aldundi eta udalei dagokienez, guztizko aurrekontuan izandako jaitsiera kulturari egindako gastuan ere islatzen da. Aldundietan jaitsiera handiagoa izan dela ikusi da: 2008tik 2016ra % 24,6 gutxitu da kulturako gastu likidatua; guztizko aurrekontuaren jaitsiera, aldiz, % 4,0koa izan da.


Udalei dagokienez, nahiz eta kulturari egindako gastua % 19,5 txikiagoa izan den, kultura-arloan ahalegin handiena egiten duten administrazioa izaten segitzen dute (% 9,3koa 2008an, eta % 8,6koa 2016an).

53. irudia. Kulturako gastu likidatuaren eta guztizko aurrekontuen bilakaera (Oinarrizko indizea 100 = 2008), eta ahalegin kulturala (%), administrazio-mailaren arabera. 2008-2016


Eusko Jaurlaritza



Foru-aldundiak



Udalak



- Ahalegin kulturala
- Kulturako gastu likidatua
- Aurrekontua, guztira

■ **Kultura-ekintza eta musika, jarduketa publikoaren esparru nagusiak**

Kulturan egindako gastu publikoaren erdia baino gehiago (% 58,4) arte eta industrietara bideratzen da; laurden bat ondarrera (% 25,9), eta gainerakoa jaietako eta herri-kulturako (% 8,0) eta zuzendaritza eta zerbitzu orokorretako (% 7,7) gastuen artean banatzen da; azken horiek sektore zehatz bati egotzi ezin zaizkion funtzionamenduko gastuak dira.

Kultura-ekintza (% 25,5) eta musika (% 18,8) dira gastu-bolumen handiena sortzen duten sektoreak. Kultura-ekintzaren barruan sartzen dira programazio zeharkakoa duten jarduerak, balio anitzeko ekipamenduak, eta espezializatu gabeko izaera komunitario eta sozio-kulturaleko zerbitzuak.

